elkarberri

73



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2022ko urtarrila - martxoa / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

IRITSIERAK

MAIATZA BILBO 7-8 ON TIME

III. ESTATU MAILAKO FISIOTERAPIA JARDUNALDIAK LEHEN MAILAKO ARRETAN

HEGAZKINEAN

Apirilak 2

Donostia

"SAREAK SORTZEN ETA JENDEA EZAGUTZEN: AUKERAK ZABALTZEN"

PrimaryAir

ONTZIRATZEA

Martxoak 19

Gasteiz

"ESPERIENTZIAK GEHITZEN, INGURUA EZAGUTZEKO"

Primary Air

MALETAK PRESTATU

Otsailak 5

Online

"III. ESTATU MAILAKO FISIOTERAPIA JARDUNALDIAK LEHEN MAILAKO ARRETArako AURKEZPENA"

INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIOA:
3jornadasnacionalesfisioterapiaapaterrizandoeuskadi.com

Andrea Scolari
EFEO-ko batzordekidea

editoriala

Balkoi baten Bila

Lerro hauek nire etxeko balkoitik idazten ditut. Eserleku koloretsu batean eserita nago, eta abenduaren 31k oparitzen dizkigun argi-izpi guztiak neureganatzen ari naiz.

2020ko erdialdean hasi nintzen balkoiaren bila, nahitaezko itxialdian Iturribide kaleko nire leihotik pareko bizilagunak arratsaldero bizi-energiaren ordu batzuez nola gozatzen zuen ikusi nuenean.

Hortik gutxira, jende askori gertatutakoaren antzera, kanpoaldean nire bizitza mugatuz joan nintzen, eta denborarik gehiena nire etxean egoten hasi nintzen.

Esan behar dut ez zidala gehiegi eragin jendearekiko isolamendu horrek. Nire beharrik handienak ziren eguzkiak aurpegian jotzea eta belar freskoa usaintzea. Azkenekoa ez nuenez, nahikoa nuen goizero tartetxo bat leihoaren aurrean ematea, Bilboko hirigunean, zementuzko blokeen artean, sartzen zen eguzkiaren hogeita hamar minututxo horien bila.

Ondo sentitzeko identifikatu nuen bizi-behar hark bultzatu ninduen, besteak beste, ingurune naturalagoan, hiri handiaz kanpo, egoitza berria bilatzera, egunero pilak kargatu ahal izateko. Eta hala gertatu zen, astroak lerrokatu ziren... eta gaur nire balkoitik idazten dut. COVID 19 adiskide handiak utzi zidan ikaskuntza handienetako bat izan zen niretzat partikularki funtsezkoa dena bilatzen hastea. Etenaldi bat egin nuen behar-beharrezkoa ez zena sentitu eta erregistratzeko, nire burua hobeto ezagutu nuen. Eta aurkikuntza hasiera batean hutsala iruditu arren, nire bizitza aldatu zela eta onera egin duela ziurta dezaket.

Hasten ari den 2022. urterako nire desirarik onena da pertsona batek lerro hauek irakurtzen dituenean biziago sentiarazteko zerbait aurkitzea, nik nire balkoiarekin sentitu dudan bezala.

HEGAZKIN ETA ITSASONTZIETARAKO GAITASUNEN NAZIOARTEKO ESKOLA

HEGAZKINAK LURRERATZEKO IKASTAROA

6 hilabete besterik ez

Etorkizuna zure esku. Ikastaro honi esker, krisialdia hegan joango da.

Matrikulatzeko epea irekita dago

Praktikak konpainia onenetako hegazkinak lurreratuz, bidaiariekin eta bidaiaririk gabe.

Gidari uniformea galoiekin eta txapela oparitzen ditugu matrikularekin.

Sinesten duzu?

Orduan, zergatik sinesten duzu masaje eta teknika sanitarioen funtsik gabeko ikastaroei buruzko informazioa?

Masaje, kiromasaje, erreflexologia, akupuntura, osteopatia, fisio-estetika eta halako modalitateetako ikastaroek ez dute balio akademikorik eta ez daukate aitorpen ofizialik. Masaje terapeutikoa fisioterapiaren barneko konpetentzia da, eta ez da osasun-esparrutik kanpo aplikatu behar. **Ez zaitzatela engainatu!**

Espetxe-zigorrak jaso daitezke osasun-arloko profesionalen ordez lesioak sendatzen saiatzeagatik eta unibertsitateko titulazio ofizialik gabe fisioterapeuta-lanbideko teknikak erabiltzeagatik.

ANTES DE RECIBIR UNO DE ESTOS CURSOS INFÓRMATE EN EL EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGO OFIZIALEAN

944 020 155 cofpv@cofpv.org

eke
EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARGOA
FEDERACIÓN DE CONSUMIDORES DE EUSKADI

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

IDEA ORIGINAL DE YRG Y DE FISIOTERAPEUTAS

aurkibidea

3
editoriala

6
berriak

18
Liburutegia

TicketBAI

19
TicketBAI

24
artikuloa

24
aholkularitza juridikoa

26
iragarkiak

30
elkargokide

Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
Koordinazioa:
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
Gauzatzea eta Maketazioa
J&J Creativos
Argazkigintza
ORO
Argitalpena
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Hiruhilabeteko argitalpena
3.200 ejemplares

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

Elkargokideei emateko dohainezko alea

Batzar Nagusia

2022ko Aurrekontu Orokorrak gehiengoz onetsi ziren

Abenduaren 18an egin zen 2021eko azken Batzarra. Online izan zen, pandemia-egoeraren ondorioz.

Hasi baino lehen eta Batzarraren formatuaren berezitasunagatik, partaideei beharrezko jarraibideak eman zitzaizkien.

Behin azalpenak emanda, aurreko Batzarreko akta onetsi zen.

Izapide horren ostean, Ibai Arrienek, EFEOko presidenteak, lanbidearen egoerari eta testuinguruari buruzko iritzia eman zuen. Egoera arduratzeko modukoa da, aintzat hartuta pandemiak sortutako zailtasunak eta izan dituen inboluzio-aldiak. Horren ondorioz, gure jarduera esparru normalizatuan mugatuta dago. “Dena den, hori ez da oztopoa lanbidearen alde lanean jarraitzeko eta kolektiboarentzat garrantzitsutzat jotzen ditugun proiektuak aktibatzen jarraitzeko”.

Era berean, arro dagoela nabarmendu zuen; izan ere, kolektiboa profesionaltasun eta ardura handia mantentzen ari da EFEOrentzat lan egiten duten pertsona guztiekiko, “eta pertsona horien eguneroko lanak egin behar diren lan ugariak aurrera ateratzea ahalbidetzen du”.

Era berean, gure diziplinaren esparru guztietan mantentzen jarraitzen den lan profesionala aitortu zuen, eta, bereziki, eremu publikoan zerbitzuak ematen dituen kolektibo fisioterapeuta osoa nabarmendu zuen; izan ere, COVIDa zuten pazienteen abordatzean eta berreskurapenean lan egin eta lagundu dute. Horrez gain, miaketa-talde teknikoetan eta prebentzio-lanetan

parte hartzen duen kolektibo osoa ere aipatu zuen.

Presidentearen esku-hartzearen ostean, Gobernu Batzarreko idazkari Roberto Romerok elkargoko administrazioan egindako jarduerak laburbildu zituen, eta, bitartean, Edorta Ansoleagak Intrusismo Batzordearenak eta Aholkularitza Juridikoarenak. Halaber, nabarmendu zuen Intrusismo Batzordeak bere lana jarraituko duela herritarrak sentsibilizatzeko kanpainen bidez, lanbidea duintzeko eta fisioterapian intrusismo profesionalari aurre egiteko xedearekin. Bestalde, Aholkularitza Juridikoak ere bere lanarekin jarraituko du, besteak beste, zaintza, kontrol, laguntza eta informazioarekin.

Roberto eta Edorta kideen ostean, elkargoko presidenteorde den June Ruizek 2022rako Komunikazioko Plan Estrategikoa aurkeztu zuen, eta honako alderdi hauek nabarmendu zituen:

- "12 hilabete, 12 osasun-gomendio" kanpaina kentzea; izan ere, dagoeneko bete du hasi zenean zeukan zeregina.
- Elkargoko sare sozialak eta elkargokideen komunikazioa sustatzea.

Jarraian, Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko arduradun Leyre Peñak 2021ean egindako ikastaroak laburtu zituen, bai eta 2022an egitera bideratutako prestakuntza-proiektuak (orain artekoak) ere. Halaber, online formatua nabarmendu zuen, kolektiboan piztutako interesagatik eta formatuak ematen dituen aukera eztabaidaezinengatik.

Prestakuntza Batzordea amaitu ostean, Andrea Scolarik berriro hartu du hitza Mendekotasun, Desgaitasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordearen eta Kirola, Kirol Egokitu eta Kirol Inklusiboaren Batzordearen jarduerak aurkezteko.

Esku-hartze horren ostean, EFEOko diruzaina den Edurne Anduezak 2022 urteko elkargoko kuoten eta matrikulen proposamena azaldu zuen, eta aho batez onetsi ziren.

Horren ostean, 2022rako Aurrekontu Orokorrak aurkeztu ziren, eta gehiengoz onetsi ziren. Hona hemen alderdirik nabarmenenak:

- 2018-2022 Plan Estrategikoan jasotako kanpainen, proiektuen eta politiken jasangarritasuna.
- Lankidetza-proiektuak edo proiektu solidarioak diruz laguntzera bideratutako partida mantentzea. Proiektu horietan gure elkargokideak protagonista izan behar dira.

Une hau helduta, Iban Arrienek horri buruzko zenbait kontsiderazio partekatu ditu, eta Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiaren barruan adostutako ekintza, estrategia eta proiektu batzuk aipatu ditu, oro har.

Ibanen ostean, Roberto Romerok hartu zuen hitza duela gutxi martxan jarritako asmo handiko proiektua laburki azaltzeko, Lehen Mailako Arretako Fisioterapiaren Jardunaldi batzuk Euskadin egiteari buruzkoa. Horren bidez, xedea da eremu publikoan, oro har, eta, zehazki, Lehen Mailako Arretaren esparruan dugun protagonismoa balioestea, nabarmentzea eta sustatzea; izan ere, duela hiru urtetik lehenengo esperientzia pilotu bat garatzen eta ebaluatzen ari dira Gasteizen.

Jardunaldiak FISIOTOPAGUNEAK proiektuaren testuinguruan jaio ziren, eta kideen kolektibo txiki batek sustatu dituzte, Euskadikoak zein kanpokoak. Halaber, arretako esparru horretan dugun partaidetza sustatzeko eta indartzeko interes berezia eta desioa izan ziren proiektuaren pizgarriak. UPV/EHUko paraninfoan egingo dira 2022ko maiatzaren 7an eta 8an.

Batzorde Antolatzailea pertsona talde horrek eta EFEOk berak osatuko dute. EFEOk beharrezko baliabide logistikoak hornituko ditu proiektua martxan jarri eta garatzeko. Batzorde Zientifiko gisa, AEFko Lehen Mailako Arretako eta Osasun Komunitarioko azpitaldea integratzea lortu da, eta, gainera, ekitaldia Lehen Mailako Arretako Fisioterapiari buruzko III. Jardunaldi Nazional gisa onesteko eskuzabaltasuna izan du.

Robertok dibulgazio-, prestakuntza- eta lanbide-proiektuaren dimentsioak azpimarratu ditu, eta, gainera, bilatzen den interes estrategikoa nabarmendu du, diziplina hori arreta-eremu horretan erabat integratzearen alde behingoz egitearen garrantzia eta beharra bultzatzeko eta sustatzeko.

Esku-hartzea amaituta, galde-eskeen unea iritsi zen, eta hainbat izan ziren EFEOko kideek kontsultatu, eta, ahal izan bazuten, konpondu zituzten zalantzak.

Azkenik, EFEOko kideek Batzarrean parte hartu zuten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta lerro hauek aprobetxatzen ditugu Elkargoaren proposamenetan modu aktiboan parte hartzera gonbidatzeko.

Idazketa Kontseilua

Fisioterapiako VI. Euskadi Sarien banaketa

Aurten, berriro ere, eta 2020ko Sari Bereziaren ostean, EFEOk Fisioterapiako VI. Euskadi Sariak banatu zituen.

Pandemia-egoeraren ondorioz, oraingoan, banaketa online egin behar izan zen; hala ere, horrek ez zion kendu inolako meriturik edizio honetako sariei.

Nabarmendu behar da sarituak banaketa honetarako aukeratutako epaimahai espezializatu batek hautatu zituela, eta aurkeztutako lanek maila handia izan zutela; beraz, aukeraketa zaila izan zen.

Ekimena 2015ean sortu zen, eta horren xede nagusia da gure lanbidean egiten den lan handia ezagutzera ematea, ez soilik pazienteekiko eguneroko harremanari dagokionez, baizik eta ikerketara, osasunaren sustapenera eta Fisioterapiaren profesional garrantzitsuek egindako ikerketetara dedikatutako denborari dagokionez; horrela, guztiok batera pertsonen bizi kalitatea eta osasuna hobetzeko.

Oraingoan, Fisioterapiaren lana garatzen den esparruak batera jasotzen zituzten kategoriak honako hauek izan ziren:

- Fisioterapeutarik onena
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamenik onena
- Ibilbide profesionalik onena Fisioterapian
- Ikerketa saria
- Saria Gradu Amaierako Lanik onenari
- FisioLagun saria

Hasteko, EFEOko presidente den Iban Arrienek Sarien Edizio honetako aurkezpena egin zuen. Sarion garrantzia nabarmendu zuen Fisioterapia

ikusarazteko, bai eta zuzenean edo zeharka Fisioterapia sustatzen duten profesionalen garrantzia ere.

Saria Fisioterapiari buruzko komunikazio-piezarik onenari

Funtsezkoa da fisioterapiako profesionalek egiten duten lana ezagutzera ematea herritarrek horren kontzientzia hartu eta profesional sanitario gisa pertsonen osasunaren eta ongizatearen mesedetan egiten dugun ekarpena zein garrantzitsua den ulertzeko.

Horregatik, sari horrek hedabideek gure informazio- eta sentsibilizazio-xedeak transmititzeko egiten duten ekarpen garrantzitsua aitortzen du.

Edizio honetan, saria Euskadi Irratiko Faktoria programak jaso zuen, gure lanbidearekin lotutako alderdiei emandako estaldura bikainagatik, espazio espezifiko bat sortzeagatik,

urte osoan gure diziplinari eta kolektiboari emandako arreta eta balioagatik eta fisioterapia sustatu eta dibulgatzeagatik.

Saria jasotzeko arduraduna Manu Etxezortu izan zen, programaren zuzendaria.

FisioLagun saria

Fisioterapiako V. Euskadi Sarietatik kategoria berri bat gehitzea proposatu zen, kolektibo eta diziplina horren zaintzan, arretan eta maitasunean modu askotan eragiten duten euskal pertsona, enpresa edo erakundeen lana merezi duten moduan aitortzeko.

Edizio honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza sari horrekin saritzeko eta aitortzeko ohorea eta plazera izan genituen.

OHOREA da; izan ere, erabaki-organoetako instantziarik altuenetatik egindako lan zaila beti da aitormena merezi izateko modukoa eta PLAZERRA da; izan ere, Euskadin, organismo ofizial garrantzitsu horren atzean, pertsona bat dago: Mikel Sánchez Fernández, Saileko zuzendaria. Berarekin harremanetan jartzeko aukera izan dugu pandemia ikaragarri honen hasieratik elkargo-erakunde eta kolektibo profesional honetan jasotako eskari, kontsulta, kezka, beldur, kexa eta frustrazio ugariak helarazteko.

Epaimahaiak beharrezkotzat jo zuen honako hau nabarmentzea: elkargo-erakunde honetatik eman ahal izan dizkizuegun jarduketa, proiektu eta zerbitzuetako askoren atzean Sánchez jauna eta bere Saila egon dira.

Saria Gradu Amaierako Lanik onenari

Sari honen bidez, gure lanbidera sartzen diren profesional berriak saritu nahi dira. Edizio honetan hutsik geratu zen, baina ziur gaude ez dela horrela izango etorkizuneko edizioetan.

Saria fisioterapeutarik onenari

Sari honen bidez urtean zehar jarraitu beharreko erreferentzia edo eredu izan diren fisioterapeutak saritzen dira. Oraingoan, Asier Arrizabalagak jaso zuen, ezagutza espezifikoari eta metodologia zientifikoari egindako ekarpenagatik eta eremu geriatrikoko esku-hartzeetan izandako esperientzia aberasgarriagatik; izan ere, Epaimahaiaren iritziz, arreta-eremu hori oso gutxi baloratzen da, baina izugarri zirraragarria da. Halaber, profesional sanitario gisa, erantzukizun handia dugu esparru horretan, zainketa-esparru amaigabea eta zaintzea eta garatzea merezi duen etorkizuna.

Ikerketa saria

Ikerketa lana garatzeko, horretan aurrera egiteko eta Fisioterapia osasun-diziplina gisa finkatzeko oinarrietako bat da.

Oraingoan, saria (1.000 € eta 500 €-ko ikerketa-beka bat) Alicia Portillok jaso zuen "Perspectiva de las familias que realizaron tele-intervención en atención temprana durante el confinamiento por Covid-19: Estudio cualitativo" lanagatik.

Saria Fisioterapiako ibilbide profesionalik onenari

Amaitzeko, sari hau banatu zen. Bere xedea zen Fisioterapian lanean bizitza eman duen pertsona bat saritzea.

Sari honetako irabazlea Malagako Unibertsitatean doktorea, Malagako Unibertsitateko Fisioterapiako jakintza-arloko irakaslea, Malagako Biomedikuntza Institutuko F-14 Klinimetria Ikerketa Taldeko zuzendaria (IBIMA F-14) da. Horrez gain, Hezkuntza Ministerioko doktorego osteko ikertzailea izan da ("Jóvenes Doctores, José Castillejo") London-Roehampton Unibertsitatean (Erresuma Batua) 2009-10 ikasturtean. Hainbat egonaldi egin ditu visiting professor gisa nazioarteko zentroetan, hala nola Brightonen (Erresuma Batua), Lovaina (Belgika) eta Sunshine Coasteko Unibertsitatean (Queensland, Australia).

Gaur egun, Queenslandeko Unibertsitate Teknologikoko (Brisbane, Australia) adjunct professor da eta BMC Sport Science, Medicine and Rehabilitation Journaleko (BMC series) editorea.

Hona hemen bere interes bereziko arloak: biomekanika eta giza fisiologia giza mugimenduari aplikatutako ingeniaritza biomedikoko alderdiekin integratzearen bidezko ikerketa aurreklinikoa. Carlos III Institutuak (2013-7) finantzatutako Osasuna Sustatzeko Ikerketa Sareko kide da. Bertan, afekzio kronikoetan osasuna sustatzeko ikerketa klinikoa garatu du, fisioterapia komunitarioko entsegu klinikoen bidez.

Aurreko guztiagatik, Epaimahaiak erabaki zuen sari hau Antonio Ignacio Cuesta – Vargas doktoreari ematea.

Saritu guztiek hitz egin zuten beren esker ona adierazteko y gure lan ederrean lan egiten jarraitzera animatu gintuzten.

Fisioterapeuten Elkargo Ofizialetik ere lan garrantzitsu honekin aurrera jarraitzera animatzen zaituztegu. Guk ekimenak egiten jarraituko dugu, hala nola Fisioterapiako Euskadi Sariak, eta espero dugu zuen hautagaitzak izatea 2022rako ediziorako.

Idazketa Kontseilua

Fisioterapeutak Hezkuntzan. Ingurua gaitzen

Nola helarazi Fisioterapia gehien behar dutenei

Begirada “klinikoarekin” aztertuta, batzuetan, zaila izaten da hezkuntza-arloari lotutako fisioterapia-taldeen jarduera profesionalaren egunerokotasuna eta paradigma kontzeptuala barneratzea eta ulertzea.

Abordatze terapeutikoetatik, konponbide klinikoetatik, arreta “indibidualetik” eta desgaitasuna elementu negatibo edo gainditu beharreko gisa hartzen duen esparru kontzeptualetik urrun, hezkuntza-esparruan egindako esku-hartzeek eta partaidetzak agertoki desberdina erakusten digute; izan ere, aukera mugagabeak daude, eta eskola-testuinguruak, inguruaren gaitasunak, errutinen zaintzak eta arretak, familiaren eta eskolaren inplikazio distantziakideak, subjektuaren interesen arreta finak eta haren gaitasunak aberasteak eta errazteak eragin positiboa dute haurraren eguneroko partaidetzan eta funtzionamenduan, eta hezkuntza inklusiborako xedean laguntzen dute.

Atzean geratu behar dira esku hartzeko eredu zaharkituak; izan ere, sen onak eta ezagutza zientifikoak erakutsi dute ez direla horren eraginkorrak: desgaitasunari buruzko ikuspegi eta proiekzio negatiboak (horietan helburu globala eta tratamendu-plana identifikatutako mugimendu-arazoei heltzearen ingurukoak ziren); anbulatorio-esparruetako arreta klinikoa (horren arabera, gure protagonismoa zerbitzu puntualtzat hartzen zen, hezkuntza-taldetik kanpokoa, eta inguru ez-partekatuetan eta gela atxikietan ematen zen); zaintza indibidualizatuak, eta, oro har, benetako testuinguruetatik eta hurbileko inguruetatik urrunduak; “Fisioterapia saio bereziak” (haurraren eskola-errutina hautsi eta gainontzeko talderekin integratzea oztopatzen zutenak),...

Garapen profesional horiek, laburbilduz, oso baldintzatuta zeuden ohiko ikerketa-esparruen ondorioz, eta, hala ere, esparru horien emaitzak ez ziren onak hezkuntza-/eskola-testuinguruan txertatzean.

Zalantza barik, Osasunaren Mundu Erakundeak 2001ean eta 2011n sustatutako ikuspuntu-aldaketa handia (Desgaitasunaren eta Osasunaren Funtzionamenduaren Nazioarteko Sailkapenean oinarritutakoa, haurrentzako eta nerabeentzako bertsioan -CIF-IA-) funtsezko elementua izan zen gure garapena eta partaidetza profesionala berrantolatzeko. Norbanako bakoitzaren gaitasunak nabarmentzea, eta ez bere defizitak edo mugak; hori bihurtu zen gure esku hartzeko paradigmaren oinarrizko elementu, ikerketa berrien emaitzekin bat.

Aldaketa kontzeptual ugariren artean, nabarmentzekoa da ingurumen-faktoreak erabat aintzat hartzen direla funtzionamendurako, garapenerako eta trebetasuna eta gaitasuna lortzeko aldaketa-eragile gisa, banaka, isolatuta eta defizitean soilik oinarrituta artatzen duen arretaren ikuspegi partzialaren eta osatugabearen aurrean.

Ildo horretan, izugarria da fisioterapeuten kolektibo berri horrek esku hartzeko eredu berrietara egokitzeko eta horiek barneratzeko izandako gaitasun handia identifikatzea. Azken hamarkadan, geure esku-hartzeak birbideratzen ikasi behar izan dugu.

Honako hauek dira hezkuntza

Mugimendu-desgaitasuna edo funtzio-alterazioa duen ikaslearen ebaluazioan lagu
soilik egiturazko alterazioak baloratuko, baizik eta ikasleak curriculumean sartze

Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei lagu

Fisioterapiako esku-hartzeko plana garatzea, zeinak ikasleei erraztasuna
ikaslearen gaitasun funtzionala hobetzea. Gaitasun horren osagaietako
etorriak, joan-etorriak egiteko laguntzen erabilera, heziketa fisikoko pro
manipulazioa, etab.) eta jarrera (jarrera egokiak mantentzea d

Hezkuntza-fisioterapeuta hezkuntza-komunitateko beste profesional batzuekin koo

Hezkuntza-fisioterapeuta ikasle bakoitzaren familiarekin koordinatz
naturalean txertatu eta egokitzeko; horrela, ikaslearen fu

Etengabeko prestakuntza Fisioterapiarekin eta hezkun

Halaber, aldez aurretik ezarritako praktikak baztertu eta geure ezagutza eguneratu dugu; hezkuntza-komunitatean dugun parte-hartzea nabarmentzeko eta balioesteko aukera ematen diguten lankidetza-loturak eta garapen profesionalerako estrategiak aberastu dira. Lan kolektibo hori, zalantza barik, bere fruituak ematen eta adostutako garpen profesionaleko programa estrategikoak ezartzen hasi da.

Euskadin, abenduaren hasieran, “Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzaren behin betiko proposamena, hezkuntzako langile lan-kontratudunen funtzioei buruzkoa” proposamenaren zirriborroa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzako buru den Lucía Torrealday Berrueco andreak. Proposamenaren edukian zenbait muga ez datoz bat fisioterapia-taldeak arreta-eremu horretan izan behar dituen eginkizunekin eta bete behar duen zereginarekin; zalantzarik gabe, hori esku hartzeko ditugun aukerak modu partzialean interpretatzearen ondorioz gertatu da. Horren ondorioz, berriz orientatzeko eta aldatzeko eskaera formala egin da, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko profesionalen ordezkapen handiak adostua.

Fernando Lázaro
Roberto Romero

a-fisioterapeutaren funtzioak:

ntzea, aldaketa horren eragile diren alderdiak kontuan hartuta. Horretarako, ez dira eko eta eskola-dinamikan parte hartzeko oztopoa ezartzen duten alterazioak ere.

tzeko plan indibidualizatua egiten parte hartzea.

ak emango dizkien curriculumera sartzeko. Esku-hartze horren xedea da batzuk honako hauek dira, besteak beste: funtzio motor gehienak (joan-gramaziorako egokitzapenak, etab.), eskuzko funtzioa (irismena, presioa, eformazioak ekiditeko, aldaka zaintzea, eskoliosia zaintzea...).

ordinatzea mugitzeko zailtasunak dituzten ikasleak curriculumera sartzea errazteko.

ea eskolan egindako estrategiak partekatzeko, horiek etxeko inguru ntzionaltasunik handiena lortu ahalko da inguru guztietan.

tza-komunitatearekin zerikusia duten alderdi guztiekin.

Aspanogin laguntzeko eskaera

Aspanogik (Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartea) laguntza-eskera hau eta zuen lana aitortzeko mezu hau helaraztea nahi izan du.

Haurren minbizia ez da maiz gertatzen den gaixotasuna; izan ere, oso proportzio txikian geratzen da gainontzeko giza minbiziekin alderatuta, baina Gipuzkoan urtean 20 haurri eragiten dion errealitatea da eta bigaren postuan dago 1 eta 14 urteko haurren heriotza-kausa gisa.

Minbiziak haurrari eragiten dionez, familia osoaren bizitza izugarri aldatzen da, familia antolatzeko, laneko, ekonomiako, eta, noski, sentimenduak kudeatzeko alderdi praktikoenetatik hasita.

1996ko otsailean, ASPANOGI sortu zen, eta haren xedea zen minbizia diagnostikoa zuten haurren eta haien senideen bizi kalitatea hobetzea, gaixotasunaren fase guztietan eta gaixotasunaren eta tratamenduaren ondoriozko arazoetan.

Elkarteak honako hauek ematen dizkie familiei: laguntza psikologikoa, gizarte-arreta, laguntza materiala eta bibliografikoa, aisialdiko eta denbora libreko programa... Dena den, behar batzuei ezin diegu behar bezala heldu, eta hor eskatzen dugu zuen lankidetza.

Gaixorik dauden haurrek, errehabilitazioa edo nolabaiteko estimulazio fisikoa behar badute, Osakidetzaren tratamendua jasotzen dute oro har, baina senideek ez dituzte haien ongizate fisikoa zaintzeko laguntzak jasotzen. Ikusten dugu gurasoek ordu asko ematen dituztela ospitaleko gelan, haurraren ohe ondotik mugitu gabe, egun askotan sofa batean edo besaulki batean lo egiten dute, kalera gutxi ateratzen dira infekzioren bat transmititu ahal dieten beste pertsona batzuekin harremanik ez izateko. Horrek guztiaren eta semea edo alaba gaixotasun larri batekin ikustearen estres emozionalaren ondorioz, guraso askorengan kontrakturak, bizkarreko edo lunbarretako minak, etab. agertzen dira.

Gure zaintzailea zaintzeko zereginean oso garrantzitsutzat jotzen dugu gurasoen ongizatea hobetzea, gaixorik dauden haurrak baldintza hobeetan artatu ahal izateko. Horregatik, zuen lankidetza eskatzen dugu, osasuneko profesional gisa. Gustatuko litzaiguke familiei fisioterapiako elkargokideen zerrenda bat eskaintzea, haien arazoekin sentsibilizatuak, familiari nolabaiteko onura ekartzeko: deskontu-bonuren bat saioarekin preziorako; hainbat saiotarako bonua, beherapena aplikatuta; etxean saioak egitea kontsultako saioen prezioen mantenduta... Hau da, Fisioterapiaren profesional baten arreta jaso ahal izatea errazteko bururatzen zaizuen edozer.

Pertsona interesatuek edo informazio gehiago behar dutenek Aspanogirekin jar daitezke harremanetan, info@aspanogi.org helbidean edo 688736571 (Marijose) edo 618476423 (Nekane) telefono-zenbakien bidez.

ASPANOGIko zuzendaritza

“Zahartzaro osasuntsurantz desgaitasun intelektuala duten pertsonengan” I. Eguneraketa Ikastaroa

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen bizi itxaropena luzatu egin da azken hamarkadetan, aurrerapen soziosanitarioei eta teknologikoei esker. Luzapen horrek zahartze biologiko goiztiarreko prozesu bat egotea justifikatzen du, desgaitasun, mendekotasun, komorbilitate eta hauskortasun gehiago sor ditzakeena.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonei arreta integrala eta zaintzak ematera dedikatzen diren erakunde publikoek eta pribatuek honako erronka hau dute: zahartze prozesu biologikoak sortutako ondorioei nola erantzun ahal zaien aztertzea. Alde batetik, ez dituzte ezagutzen gerontologiako eta geriatriako esparruan horren ohikoak diren zenbait termino: hauskortasuna edo sindrome geriatrikoak. Bestalde, oro har, erakunde horiek ez dute zahartze osasungarriaren sustapenean prestatutako profesionalik, eta, horren ondorioz, ez dituzte esku-hartze estrategiak proposatzen desgaitasun intelektuala duten pertsonen zahartze osasungarria eta aktiboa sustatzeko, sindrome geriatrikoen presentzia atzeratzeko (erorketak, gelditasuna, idorreria, inkontinentziak, dementziak, depresioa, eta abar), gaixotasun kronikoen presentzia murrizteko eta hauskortasun fisiologikoaren presentzia atzeratzeko xedearekin (bizitzako prozesu horretan, erreserba fisiologikoak murrizten dira, eta, horren ondorioz, homeostasi fisiologikoa ez da bermatzen. Horregatik, edozein gertaera estresatzailek komorbilitate, ospitaleratze eta hilkortasun handiagoa eragin dezake).

Horregatik, Zahartzaroaren “Desgaitasuna eta Zahartzea” lan-taldeak eta Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Mendekotasun, Desgaitasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak hainbat urte daramatzate prestakuntza-ekitaldietan elkarrekin lan egiten. Ekitaldi horien xedea da desgaitasun-prozesuren bat (intelektuala, fisikoa, buruko gaixotasunak...) duten pertsonei zuzendutako zahartze osasungarria sustatzea eta desgaitasunaren arloko profesionalei zahartze biologikoak eragiten duen desgaitasuna eta mendekotasuna atzeratzeko balioespen- eta bahetze-tresnak ezagutzen laguntzea, eta, bestalde, funtsezko esku-hartzeak aurkeztea, hala nola fisioterapeutek diseinatutako eta koordinatutako ariketa terapeutikoko programak.

2020an, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak eta Zahartzaroak elkarrekin lan egin zuten Udako Ikastaro bat antolatzeko, desgaitasuna zuten pertsonen zahartzean oinarritua. 2021an, beste Udako Ikastaro bat egin zen, eta, bertan, Fisioterapiak zahartze aktibo eta osasungarria sustatzen duen papera ezagutzera eman zen. 2021eko azaroan, “Zahartzaro osasuntsurantz desgaitasun intelektuala duten pertsonengan” eguneratze-ikastaroa egin zen, Zahartzaroaren urteko biltzarraren programazioaren barruan. Ikastaro horretan, honako hauetan oinarritu gara: osasuneko norberaren zaintzen (ahoaren eta oinen zaintza) garrantzia ezagutzera ematea, loaren zikloaren kalitatea hobetzea, zahartzeak eragindako arazo psikiatrikoei aurre egitea, elikadura-ohitura egokiak sustatzea, baheketa-tresna aurkeztea eta sarkopenia-hauskortasuna-erorketak balioestea eta adimen-desgaitasuna duten pertsonei egokitutako ariketa terapeutikoko programak ezagutaraztea. Ikastaroaren helburua zen desgaitasunaren arloko profesionalei eta desgaitasuna duten herritarren zahartze osasungarriaren esparruko ezagutzak handitu nahi dituzten fisioterapeutei zuzendutako prestakuntza orokorrarekin hastea.

Hurrengo urteetan, bizi-itxaropena handitzea aurreikusten da; beraz, zahartzen ari diren herritarren beharrak ere handituko dira eta fisioterapeutek rol protagonista izango dugu diziplina eta dimentsio arteko (dimentsio fisikoa, psikologikoa eta soziala) zahartze osasungarriko programetan parte hartzeko unean. Aprobetxa dezagun aukera desgaitasunaren eta zahartzearen esparruan egindako ekarpenak ezagutzeko!

Asier Arrizabalaga Otaegui
383. elkargokidea
Zahartzaroko “Desgaitasuna eta Zahartzea” lan-taldeko koordinatzailea.

Fisios Mundi eta Boluntariotza Fisioterapian

Nola eraman fisioterapia gehien behar dutenei

Elkarte hori 1997an sortu zen, eta soilik fisioterapiara dedikatzen den gobernuz kanpoko erakunde nazional bakarra da. Fisios Mundik **fisioterapia mundu osora** eraman nahi du, eta tratamendu bat jasotzeko baliabiderik ez duten pertsonen beharrei erantzun. Gizarte-ekintzaren helburua fisioterapiaren esparruko ezagutzak, laguntza eta terapia ematea da, gizarteko kolektibo ahulenetan.

Baina, zer da fisios mundi? 0>Nor gara? Duela 20 urte baino gehiago sortu zen arren, gaur egun boluntario talde batek osatzen du, gehienak emakumeak, eta fisioterapia osasun-sistema iristen ez den tokira iritsi dadin saiatzen gara, bai estatuan, bai nazioartean.

GKE honek hezkuntzan oinarritutako **garapenerako lankidetzaren** eredua babesten du; horretarako, ez da fisioterapian ardazten, nahiago du tokiko langileak prestatu. Antzinako esaera zahar honek dioen moduan: "*Eman iezaiozu arrain bat eta egun batez jango du, erakuts iezaiozu arrantza egiten eta beti jango du!*" Fisios Mundiren helburua da fisioterapian beharrezkoak diren ezagutzak eskaintzea, etorkizunean beharrezkoak izan ez daitezen.

Gaixotasun fisiko larria duten haurrek itsasoaz gozatu ahal izateko egokitutako aulkietako bat praktikan jartzea, Superando GKEarekin

Jarrera-kontroleko eta luzamenduetako klasea Caritaseko abegi-zentroetan

Garrantzitsua da lankidetzaz hitz egiten dugunean, harreman hori bi norabidekoa izatea eta harreman paternalista batean ez erortzea. Gure lana eragindako pertsonekin zuzenean lan egiten duten langileei errehabilitazioaren arloko prestakuntza ematea da. Proiektuan parte hartzen duen biztanleriak dituen beharren eta proiektuaren arabera, esku hartzea zehatzagoa izan daiteke edo ez. Guretzat garrantzitsuena, lankidetza bat egitean, erabilgarria eta aplikagarria izatea da, kasu gehienetan ur-jauziko prestakuntza erabiliz.

Estimulazio sentsorialeko klase praktikoa Boli Kostako Dabou umezurztegian

Kasuak berrikustea eta plan terapeutikoa Rach Gia umezurztegian

Proiektu berri baten balorazioan garrantzitsua da beharrak detektatzea eta errehabilitazioaren alorretik nola lagun dezakegun ikustea. Baina alderdirik garrantzitsuena da jarraipena nola egingo dugun ikustea, esku-hartzean zehar zein ondoren, proposatutako oharrak edo aldaketak pixkanaka finkatu ahal izateko.

Batzarrean aurrera eramatea gustatuko litzaigukeen gauzetako bat lankidetza-sare bat sortu ahal izatea da. Sare horretan, laguntzeko eta gure denbora eskaintzeko gogoa dugun pertsona guztiok lan-eredu bat partekatu eta sortu ahal izango dugu, hainbat proiektutan erabili ahal izateko. Norbaitek laguntzeko gogoa duenean, errehabilitazioaren mundua bultzatzeko lan egiten duten erakundeen sare horretan sartu ahal izatea, eta haien eskuragarritasunera eta prestakuntzara egokitu daitekeen lan-talde batean parte hartu ahal izatea. Ereduarekin lan egiten duten GKE txiki guztiekin indarrak batuz, esparru horretan fidagarria izango den lankidetza-eredu bat sortu ahal izateko eta pertsonek osasunaren arloan dituzten beharrei benetako ekarpena egiteko.

Bi urtean behingo jarduerak integratzea Boli Kostako Youpogon umezurztegi publikoan

Kasuak berrikustea eta jarraibide terapeutikoak Boli Kostako Dabou umezurztegian

Aurrera eramaten ditugun proiektu guztiak kontrako alderdi baten bidez egiten ditugu, eta aurrera eramateko azpiegitura sendoa ematen digu. Horregatik, lotura bat sortu nahiko genuke Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialarekin, proiektu solidarioen sarea zabaldu ahal izateko eta norabide berean doazen ideiei irteera emateko, hala nola Tximelagua GKEa, fisioterapeuta-tratamendua egiten du Nikaraguako iparraldean dibertsitate funtzionala duten haurrekin; edo Kind Surf elkartea, Zarautzko Shelter Surf eskolarekin batera egiten du lan, eta erregulartasunez ia urte osoan surfeko eskola inklusiboak egiten dituzte dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat.

Beraz, gure webgunea eta sare sozialak bisitatzera animatzen zaituztegu, gaur egun gauzatzen ari garen proiektuak ezagutzeko eta gurekin harremanetan jartzeko, taldeko kide izaten hasteko edo bazkide egiteko.

Gainera, ekintza solidarioa zabaltzen lagun diezagukezue, gure argitalpenak sare sozialetan partekatuz edo gertuko pertsonei Fisios Mundiren inguruan hitz eginez.

Zuen zain gaude

Itsaso Olasagasti Ruiz de Gauna
Fisios Mundiko presidenteordea
web: www.fisiosmundi.org
facebook eta instagram: Fisiosmundi

FISIOTOPAGUNEAK

Aurretik adierazi genuen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak **FISIOTOPAGUNEAK** proiektua abiarazi du. Lidergo partekatuko eredua eta partaidetza-proposamena da, eta bere xedea da interes profesional kolektiboko zuen ideien eta proiektuen garapena sustatzea, bultzatzea eta erraztea, Elkargoaren aurrekontu orokorren kontura.

Proiektua lehenengo urratsak ematen hasi da, eta, poztasun handiz, hari buruzko xehetasun handiagoak ezagutzeko lehenengo eskaerak jaso ditu. Gainera, garapen-ideietan parte hartzeko proposamen zehatz batzuk ere iritsi zaizkigu.

Garrantzitsua iruditzen zaigu honako hau nabarmentzea: gure aldetik, proposatutako ideietan eta proiektuetan bigarren mailako papera hartu nahi dugu, eta, laburbilduz, zuen ideiak eta beharrak martxan jartzea, hedatzea eta garatzea erraztuko duen tresna erraztatzailea izan nahi dugu. Beraz, kudeaketa eta lidergo partekatuko esparru bati buruz ari gara, non gure ohitura faltak akats batzuk egitera eraman ahal gaituen eta hasierako zailtasun batzuk aurkituko ditugun (edozein proiektu berritan hala gertatzen da); hala ere, ziur gaude epe ertain eta luzera kolektibo gisa hazteko aukera mugagabeak eskainiko eta irekiko dizkigula.

Hona hemen gure aurreikuspenen arabera egin ahalko diren esku-hartzeetako batzuk: prestakuntza proiektuak, topaketa kolektiboak, eztabaida-mahaiak, tailer teknikoak, infografien diseinua eta garapena, komunikazio- eta dibulgazio-proposamenak, ikerketa-jarduera sustatzea... Laburbilduz, partaidetza-aukera ugari, premisa bakarrarekin, topaguneak aurkitzea eta aberastea, eta entzima katalizatzaile bakarra, hazteko eta garapen profesionalerako desio partekatua.

Elkargoaren webgunearen bidez, *Fisiotopaguneak* sekzioan, elkargokideen atalean menu nagusia aurkituko duzue, eta, bertan, euskaragarri izango duzue eskera egiteko oinarrizko dokumentua. Horren bidez, proposamenaren "argazki globala" helaraz diezagukezue, behin FTG proposamena aurkeztuta zehaztasun handiagoa behar izatearen kalterik gabe.

Asmo handiko proiektu honekin bat egitera animatzen zaituztegu, eta zuen FISIOTOPAGUNEAK markoa marraztera.

Zuzendaritza Teknikoa

Ezkerretik eskuinera: Jesús Seco, Enrique Hilario, Jon Irazusta, Sergio Murillo, Joseba Pineda, Eva Ferreira, Iñaki Gorizelaia, Gorka Moreno, Iban Arrien, Ana Rodríguez eta Agustín Martínez.

Fisioterapia Graduaren X. urteurrena UPV/EHUn

Ekitaldiak unibertsitateko, erakundeetako eta gizarteko ordezkari ugari bildu zituen

Bizkaia Aretoa Fisioterapia Graduaren hamargarren urteurrenaren ospakizuna jaso zuen. Ekitaldi hunkigarria izan zen, eta unibertsitateko komunitateko ordezkari ugari bildu zituen. Horien artean, ordezkari ugari ere bertaratu ziren, bai eta osasun-arloko kideak eta hainbat erakundetako (elkarteak, enpresak...) agintariak eta ordezkariak ere.

Dekanoak, Joseba Pinedak, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak titulazio berria ezartzean izan zituen zailtasunak nabarmendu zituen: "orduan landutakoarekin bat egiten ez zuen eskaintza zen. Beste gradu batzuk sortzean, aurreko lizentziaturetako eta diplomaturetako esperientzia eta programazioa geneukan, baina Fisioterapiaren kasuan hutsetik hasi behar izan genuen", gogorarazi zuen.

Pinedak promozio berrietako profil nagusia nabarmendu zuen; izan ere, gehien bat emakumeak dira, eta euskaldunak. "Gaur egun, praktikak egiten dira berrogei zentro baino gehiagotan, eta enplegagarritasun-mailak urtean % 90 gainditzen du, eta graduarekin lotutako enplegua % 100koa da", nabarmendu zuen.

Bestalde, Jesús Secok proiektuaren lehenengo urratsak gogoratu zituen: "kalitatezko eta gizarte-proiekzioko titulazioa eskaini behar zen. Lan-leherketa izan zen: hamar urtean UPV/EHUko Fisioterapia Graduak beste asko hamarkada ugaritan lortu ez duten moduan aurrera egin du".

Errektoreak, ekitaldia ixteko, gure eskaintza akademikoaren errealitatea posible egin zuten pertsonei eskerrak eman zizkien: "gure unibertsitateko Fisioterapiako Graduak lehenengo mailako azpiegiturak eta irakasle eta ikertzaile bikainak ditu gaur egun. Hori da gradu berri baten txertaketak nolakoa izan beharko lukeen adierazteko modurik onena: unibertsitateko politikako erabakia, eta, horretarako, erakundeen babes irmoa eta beharrezko bitartekoen hornikuntza izatea".

Idazketa Kontseilua

Elkargoko liburutegiaren eskaintza handitzea

Aurreko Batzarrean, Elkargoaren Batzordeak kolektiboari jakinarazi zion Panamericana argitaletxearen ebook baliabidea bertan behera utziko zela ez zelako erabiltzen.

Hortaz, Elkargoak ebook horien ale fisiko bana erosi zuen kolegiatuek liburu horiek kontsultatzeko aukera izan zezaten.

Elkargoaren liburutegian eskuragai dauden liburuen zerrenda:

- Fundamentos de Farmacología para Fisioterapeutas
- Umbral Láctico. Bases fisiológicas y aplicación al entrenamiento
- Fisioterapia invasiva del Síndrome de Dolor Miofascial. Manual de punción seca de puntos gatillo
- Entrenamiento propioceptivo. Principios en el diseño de ejercicios y guías prácticas
- 100 Técnicas de Movilización con Impulso en Osteopatía. Manipulaciones de alta velocidad y baja amplitud
- Control y Aprendizaje Motor
- Manual de Pilates Aplicado al Embarazo
- Fisioterapia en Especialidades Clínicas. Sistema musculoesquelético II
- Métodos Específicos de Intervención en Fisioterapia. Sistema musculoesquelético I
- Rehabilitación de las Enfermedades Neuromusculares en la Infancia
- Guía Esencial de Psicogeriatría. 2ª edición
- Prescripción de Ejercicio en el Tratamiento de Enfermedades Crónicas
- Epidemiología Clínica. Investigación clínica aplicada
- Sistema fascial. Anatomía, valoración y tratamiento
- Ecografía Musculoesquelética. Atlas Ilustrado
- Gases Sanguíneos, Fisiología de la respiración e Insuficiencia respiratoria aguda
- Entrenamiento Deportivo: Teoría y práctica
- Neuroanatomía Humana
- Ordenes de tratamiento en reumatología 2014
- Entrenamiento combinado de fuerza y resistencia
- Electroterapia en Fisioterapia
- Rehabilitación del Suelo Pélvico Femenino. Práctica clínica basada en la evidencia
- Anatomía Quirúrgica del plexo braquial y nervios periféricos de la extremidad superior
- Anatomía Funcional. Estructura, función y palpación para terapeutas manuales
- Movilización neuromeníngea. Tratamiento de los trastornos mecanosensitivos del sistema nervioso
- Fisioterapia en Neurología. Procedimientos para restablecer la capacidad funcional
- Método Pold®. Movilización oscilatoria resonante en el tratamiento del dolor
- Neurorrehabilitación. Métodos específicos de valoración y tratamiento
- Gerontología y Geriatría. Valoración e intervención
- Manual de Epidemiología y Salud Pública para Grados en ciencias de la Salud
- Fibromialgia. Diagnóstico y estrategias para su rehabilitación
- Rehabilitación Cardiovascular
- Fundamentos de Nutrición y Dietética. Bases metodológicas y aplicaciones
- Ecografía Musculoesquelética esencial
- Ortopedia y Traumatología
- Guía Esencial de Rehabilitación Infantil
- Lesión Medular. Enfoque multidisciplinario
- Fisiología del deporte y el ejercicio. Prácticas de campo y laboratorio
- Convivir con Esclerosis Múltiple
- Neurología
- Ventilación Mecánica. Libro del Comité de Neumonología Crítica de la SATI
- Atlas de Puntos Clave Musculares en la Práctica Clínica
- Biomecánica y Bases Neuromusculares de la Actividad Física y el Deporte
- Farmacología para Fisioterapeutas (Colección de fisioterapia)
- Bases Teóricas y Fundamentos de la Fisioterapia
- Fisiología del Ejercicio
- Manual y Atlas Fotográfico de Anatomía del Aparato Locomotor
- Neurociencia Cognitiva
- Pilates terapéutico. Para la rehabilitación del aparato locomotor

Idazketa Kontseilua



TicketBAI tailer teknologikoak

Hiru hiriburuetan tailerrak egin ziren SPRI Taldearekin lankidetzan



EFEOk, TicketBai sistema ezartzeari eta egokitzeari buruzko gaiarekin jarraitzeko, SPRI taldeko aholkularitza teknologikoko zerbitzuarekin lankidetzan doako tailer praktikoak egin zituen TicketBAI sistema mikroenpresetan ezartzeko.
SPRI Taldea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko erakunde bat da, euskal industria sustatzeko helburua duena.

Tailerrak aurrez aurrekoak izan ziren, 3 orduko iraupena izan zuten eta SPRI Taldeko langile teknikoen eman zituzten EAEko hiru lurraldeetan. Tailerrak autonomoei, ekintzaileei eta enpresa txikiei zuzenduta zeuden, foru-aldundiek TicketBai sistemara egokitutako fakturazio-sistemarik ez dutenentzako sistema berri horri egokitutako plataformak ezagutzeko eta laster indarrean jarriko den fakturazio elektronikoaren araudia betetzeko helburuarekin.

EFEOk lortutzat jotzen du fakturazio mekanismo berriei erantzuna emateko doako estrategia publikoen sustapena eta hedatzea. Izan ere, elkargoaren azkeneko aldizkarian TicketBAI sistemara egokitzeko baldintza guztiak betetzen zituzten softwareen berri eman genuen.

Idazketa Kontseilua

Intrusismo profesionala fisioterapian

Nekane Jauregui Santisteban lankidearen gradu amaierako lanaren laburpena

SARRERA

Fisioterapia jarduteko hainbat metodoren bidez sendatu, prebenitu, berreskuratu eta disfuntzioak dituzten pertsonak egokitzen dituen zientzia da. Horretarako, Fisioterapeuta titulu ofiziala duen fisioterapeutaren irudia dago.

